

PLAZETATIK ERRETIROA HARTU DU MAISUAK

75 urte bete dituen egunean (maiatzaren 3an) iragarri du Xabier Amuriza Sarrionandiak bertsotatik erretiroa hartu duela. 1980an, txapela buruan, bertsogintza irauli eta bertso eskolak martxan jarri zituen eta geroztik etengabe aritu da bideak urratzen.



Estitxu Eizagirre Kerejeta
@eeizagirre

Euskadi Irratiko Faktoria saioan eman zuen albistea: "Nire gazia eta gozoa gaur da. Gaur egiten ditut 75 urte eta entzule guztiei jakinarazi nahi diet, gaur hartu dudala bertsolaritza uzteko erabakia. Jendaurreko ibilera uztera noa. Gaurko egunez, 7 urte egin nituen egunean, tabernan kantatu nuen jendaurreko lehen bertsoa, aitarekin. Beste sasi bertsolari batek txapela pasa zuen eta garai hartarako dirutza batu zuen. Geroztik, hemen gaude. Gaur amaitu dut ibilbide hori". Azken hiru saioak aipatu zituen, ingurukoek azkenak izango zirela jakinik antolatu zituztenak: apirilaren 22an Legazpin; Bilboko San Anton plaza atzeko tabernetan; eta gehien "hunkitu" duena, apirilaren 29an Altzon. Altzon egin zuen hura, "azken" jendaurreko bertso-afaria, alaba Mirenekin egin zuen. Erreleboa emanda utziko du, beraz, plaza. (bertsoa.com-en dago ikusgai Altzon egindako elkarrizketa eta kantatu zuen azken agurra).

Kartzelan erretiroa bertsogintza berria

1965ean apaiz egin zen, eta 1968tik aurrera, Francoren diktadura garaian, zazpi urte egin zituen preso, hiru espetxelditan. 1976an utzi zuen apaizgintza eta bertso ibilbideari ekin zion. Bi aldiz izan da Euskal Herriko bertsolari

Merezi duen despedida emateko, hainbat ekintza prestatzen ari dira bere inguruko bertsolariak, maiatz eta ekainerako.

txapelduna: 1980 eta 1982an. Bertsozale Elkarteko Datu Baseak aitortzen duenez: "1980ko txapelketan, berritasun handia ekarri zion bertsogintzari. Haren hizkera, irudi eta metafora-mundua eta, oro har, bertsoak egituratzeko modua bereziak ziren, ordu artekoak ez bezalakoak. Neurri eta doinueta ere berrikuntza handiak ekarri zituen: estrofa eta doinu asko sortu zituen, ordu artekoetatik oso desberdinak. Amurizarekin, bertsolaritza beste aro batean sartu zen". Atzetik etorri diren puntako hainbat bertsolarik aitortu dute Amurizak euren izandako eragina, besteak beste, Andoni Egañak.

Plazan bezala eskolan maisu

Bertsolari jaio egiten zela esaten zen garai hartan (80ko hamarkadan) Amurizak "Hori bada baldintza, zuek jada betetzen duzue! jaio zarete!" egiten zuen aldarri, ondoren, bertsotan ikasi egiten zela azaltzeko. Bertso eskola asko Xabier Amurizak emandako ikastaro horietatik sortu ziren. Horietan lehena Santutxuko bertsolari eskola izan zen.



Txapelketetan

Bertsolari Txapelketa Nagusian Txapel-duna izan zen 1980an eta 1982an eta hirugarren 1986an.

Bide urratzaile, beti

Bertsozale Elkarteko Datu Baseak dioenez, 90eko hamarkadan, plazarik plazako ibilia utzi, eta bestelako formatu batzuk lantzeko ahalegina egin zuen (gai-emailerik gabeko saioak bultzatu zituen, berak "Saio integral" deituak): *Lazkao Txiki bat-bateko sorgina*, haren pasarte eta bertsoekin emanaldia; *Mende baten aldarriak XX.ean jarriak*, hautatutako bertso politiko eta sozialen bidez historian ibilbidea egiten zuten Jon Maiak eta biek; *Harri eta herri*, Arestiren poesia hautatuekin emaniko hitzaldi-errezitaldia.

Idaztera emango du denbora

Aurrerantzean sormena erabat idaztera bideratzea erabaki du Amurizak. Lehen-dik ere obra aberatsa du, argitaratuak ditu bai bertso liburuak, nola biografia, itzulpen, eleberri, poesia eta saiakerak. ■